



HAIRAREN  
alpistegia



HAIRAREN  
alpistegia

Haurrentzako bertso-antzerkia

# SINOPSISIA

Haira oso ikasle saiatua da eta ikastetxean etengabe entzuten die irakasleei osasuntsu egotea oso garrantzitsua dela baina berak ez du oso ongi ulertzen osasuntsu hitzaren esanahia... Zer arraio ote da osasuna? Ikastetxeko erantzunek asetzen ez dutenez eta handitan kazetari izan nahi duenez, benetako orburu bat eskuetan, kale-galdeketa bat antolatzea erabakiko du eta parkean topatzen dituen pertsonei osasuna nola zaintzen den galdetzea. Arbel batean erantzun ezberdinak bilduz joango da: adineko emakume bati galdetuko dio, haur bati, kalean bizi den eskale bati, korrikalari bati...

Horrela bere ikuspegia osatzen eta zabaltzen joango da Haira. Parke ertzeko balkoi batean bizi den Lore loroak ere izango du zeresana eta galdera interesgarriak egingo dizkio tarteka.

Azken batean, hori baita antzerki honen funtsezko helburua: osasunaz dugun ideia zabaltzea, umorearen bitartez. Gorputzak bakarrik ez, gure sentimenduek, harremanek, ohiturek eta maila sozialak gure osasunean zenbaterainoko eragina duten erakutsi nahi dugu; osasuna, zatika ulertu beharrean, orekan mantendu beharreko osotasun gisa aurkeztuz.









# FITXA ARTISTIKOA

- GIDOIA: Alaia Martin
- ZUZENDARITZA: Amancay Gaztañaga
  - ANTZEZLEAK: Malen Basterretxea eta Uxue Alkorta



# FITXA TEKNIKOA

- NORI ZUZENDUA: Familiarra (5-11 urte moldagarria)
- ESPAZIOA: Oholtzan zein lurrean. Espazio minimoa 4 x 3 m.
- LEKUAK: kultur etxeak, antzokiak, plazak...
- IRAUPENA: 45 - 50 min.
- MUNTAIA: emanaldia hasi baino 120 min lehenago iritsiko da.
- DESMUNTAIA: 30 min.
- AURREKONTUA:  
950€ + BEZ (%10) / Soinu ekiporik gabe  
1.100€ + BEZ (%10) / Soinu ekipoarekin

## MAREN BASTERRETXEA (1995)

Arte Dramatikoko Goi Mailako tituluduna naiz; antzerki munduan lan esperientzia haundia daukat eta hainbat konpainiekin jardun naiz: *Bilbao Balioen Hiria* proiektuan (Baleuko), *Miradas de carbon* laburmetraian (Esti Villa), *Lubaki Lainotsua* antzezlanean eta bitartekaritza arduradun gisara (Atx Teatroa), *Kotondarrak* (Anita Maravillas), *Alpistegia* eta *Urpekakariak* antzezlanetan (Lanku), eta *Igaro* antzezlan propioan.

Musika munduan ere hizkuntza musikalean, pianoan, panderoan eta trikitixan ikasketak ditut, baita Gasteizko Jose Uruñuela Dantza Kontserbatorioan Ikasketa Profesionaletako lehenengo bi ikasmilak burutuak ere.

## UXUE ALKORTA (2001)

Bertsolari zarauztarra naiz. Lehen Hezkuntzako Gradua ikasten jarduteaz gain, Aretxabaletako Lekaixoka Bertso Eskolako irakasle, ere, banaiz.

Azken lau urtetako udako oporraldietan aisialdi taldeetan aritu naiz hurrekin lanean, Gurutzurtu Aisialdi Taldean eta Heziby Aisialdi Elkartean, hain zuzen ere.

Azken urtean gaztetxoetara eman dut salto Euskal udalekuetan eta Bertso udalekuetan lan eginez. Antzerkian lehen aldia da profesionalki aritzen naizela, halere, aitortu behar dut beti izan dudala gustuko oholtza gainean aritzea eta hurrekin jolastea



## KONTAKTUA

**Marta Agirrezabala Zubillaga**

Marketina eta Komunikazioa

---

marketina@lanku.eus

675716472 - 943 26 07 55

www.lanku.eus